

Legazpiko udal liburutegiak ekitaldi ugari antolatu ditu apirilerako

Ostiral honetan, 18.00etan, Isabel Milletek ipuin kontaketa saioa eskainiko du udal liburutegian

Legazpi.

Gaur Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta hilaren 23an, berriz, Liburuaren eta Jabego Intelektualaren Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Legazpiko udal liburutegiak adin guztietako herritarrei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu ditu apirilerako.

Ostiral honetan, 18.00etatik aurrera, Isabel Milletek ipuin kontaketa saioa eskainiko du udal liburutegian bertan. Ekitaldi honetan 5 urtetik aurrerako haurrek parte hartu dezakete.

Datorren asteartean, 10.30ean hasita, Juan Martin Elexpuru idazle bergararrarekin solasaldi literarioa izango da toki berean. Ekitaldi honetan Legazpin DBH ikasten duten gazteek parte hartuko dute.

Hurrengo saioak apirileko hirugarren astean izango dira. Hilaren 14an, 10.00etatik aurrera, Miren Agur Meabek literaturaz hitz egingo du Batxilergoko ikasleekin udal liburutegian. Idazle lekeitiarrak Euskadi Saria irabazi zuen iaz. Egun berean eta toki berean, 18.00etatik aurrera, Edorta Jimenezekin solasaldi literarioa izango da. Ekitaldi hau gazteleraz izango da eta nahi duten herritar guztiek parte har dezakete.

Hileko hirugarren asterako antolatutako ekitaldiekin bukatzeko, apirilaren 19an Malas Pulgas taldeak haurrentzako antzerki saioa eskainiko du. 17.00etatik aurrera, Latxartegi aretoan, Cyrano lan klasikoaz gozatzeko aukera izango dute herriko haurrek.

Ekitaldi hauez guztiez gain, zientziaren inguruko tailerra antolatu da hilaren 23rako. Udal liburutegian izango da, 17.30ean hasiko da eta bertan 8 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko udal liburutegira bertara jo behar da. Ekimen honen helburua Legazpiko haurren artean irakurketa eta zientzia zaletasuna suspertzea da. >a.z.